

Hernanik ez du trainerurik aterako 2003an eta Arraun Elkarteak harrobia sortzeari ekingo dio

■ Arraun Elkartea lehendakari eta juntarik gabe gelditu da eta gestora batek hartu du ardura ■ Urtarri-lean ikastaro bat antolatuko dute nahi duen guztiak arrauna ezagutu eta arraunean gozatzeko.

ARRAUN Elkarteak ostegunean egin zuen urteko asanblea eta Hernaniko arraunarentzat garai berri bat ekarriko erabakia hartu du batzarrik: jenderik osatu ezinda, datorren urtean Hernanik ez du trainerurik aterako, baina, Arraun Elkarteak lanean segituko du aurrera begira. Beste leku askotan bezalaxe, Hernanin ere arrauna azkeneko hustu egin da, eta orain oinarritik hasi eta piskanaka jendea ateratzea da helburua, Ibon Arbegi sortu berri den gestorako kideak Kronikari adierazi dionez.



Hernanik datorren denboraldian ez du trainerurik izango.

“Hutsetik hastea bezala”

Arraun Elkartea zuzenduko duen gestorako ordezkariak azaldu du hemendik aurrerakoa hutsetik hastea bezala izango dela. Ikastetxeetara eta Kirol Patronatura jotzeko asmoa dute umeei arrauna ezagutzeko aukera emateko, eta gazteentzat ere ikastaroak antolatu dituzte. Urtarri-lean, Arraun Elkarteak deialdi publikoa egingo du arraunean ibili eta gozatu nahi duenarentzat.

Deialdia, gainera, ez da herrira bakarrik egingo,

Urnieta, Andoain, Astigarraga eta inguruko jendeak ere aukera izango du Hernanin. “Azpitik jendea behar da eta horretan zentratuko gara orain” esan du Ibon Arbegik.

Aurreko denboraldian Hernanik Trintxerpekin batera ateratu zuen trainerua eta datorren denboraldirako izan da aukera Hondarribiarekin ateratzeko. Baina, proiektua bidean gelditu da, eta batzarrik erabaki du arazoaren zainera jo eta harrobia indartzeko bideak jartzea.

Arraunlariak beste klubetara
Aurreko denboraldian bost arraunlari hernaniar ibili ziren Hernani-Ubisen. Hori-etako batzuk, Trintxerpera eta Koxtapera joango dira orain, *zedituta*, eta bi denboraldi barru berriz trainerua ateratzen bada, Hernanin izango dira. Beste batzuk, berriz, arrauna utzi egin dute.

Urte onak eta txarrak
Hernaniko Arraunak lehen ere gora behera dezenteak ezagutu izan ditu, eta batez ere 10

urteotan urte ederrak eta beltzak ere izan dira. 1991n Hernanik 50 arraunlari zituen eta bi traineru ateratu ziren orduan. Koadrila horrek 3-4 urtean eutsi egin zion eta 1994an hiru bandera irabazi zituen Hernanik. Orduan Kontxatik 8 segundora gelditu ziren. Gero, arraunlari gehienek utzi egin zuten eta 1996an beheraldia etorri zen. Geroztik ere gazte koadrila politak izan ditu Hernanik, baina ez da segidarik izan. Orain, garai berri bat hasi du. □

■ PELOTA

Oiaga-Errandonea Esnal-Gorriti gaur

PROFESIONALETAKO pelota jaialdia izango da gaur kiroldegiko frontoian. Aurreneko partiduan Salaverri eta Santik Lauterdiko txapelketako kanporaketa jokatu dute. Ondorenean, berriz, bi herritarrek aurrez-aurre ikusteko aukera izango da: Iñaki Esnalek Gorriti pareja duela jokatu du, eta Josu Oiagak Iñaxio Errandonea izango du atzean.

Jaialdia normalean baino goizago jokatu da, arratsaldeko 17:00etan hasiko da. □

■ FUTBOLA

Hernani-Oiartzun gaur, Zubietan

GORENGO taldeak urteko azken partidua jokatu du gaur, klasi-fikazioan azkena dijoanaren kontra. Hernaniarrak aldegin dute beheko zulo ondotik, eta 13-garren dijoaz orain. Partidua Zubietan jokatu dute, arratsaldeko 17:00etan. □

Desafioa kalean gaur Bertsolatan

BERTSOLATA sartu da azken txanpan. Gaur historian atzera egin eta desafio haundi bat izango da herriko kaxkoan: Tellerigaingo Artzak 200 errial jarriko ditu jokoan gaur arratsaldeko 19:30etan egingo den apusturako: hamabi arroako barra zeinek gehiagotan jaso, bitako batek etsi arte. Tratua, 19:00-etan da Aralarko plazan, eta 19:30-etan apustua Irizar tabernan. □



Kontzertuak gaur Milagrosan eta Jubilatu Etxean

GAUR musika estilo ezberdineko bi kontzertu izango dira Hernanin. Jubilatu Etxean *Zero Sette* akordeoi taldearen musika izango da, 18:00-etan. Milagrosan, berriz, Kantuz abesbatzak Gabonetako eliz musika kontzertua emango du, Arratsaldeko 19:30etan hasita. □

Martutenera martxa

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduak Martuteneko kartzelara martxa antolatu du iganderako. Ekitaldiak presoak Euskal Herrira ekartzea eta Amnistia eskatuko ditu. Martxa goizeko 11:30etan hasiko da Astigarragako poligono sarreratik. Hernaniko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak bihar martxara joateko deia luzatu die hernaniar guztiei. □

■ BOLEIBOLA

Hernani kantxara

HERNANIKO boleibol taldeak Gabonetako torneo jokatu du gaur Andoainen. Zorigaitzeko istripu hura ezke-roztik Hernanik ez du partidurik jokatu eta gaur aterako da berriz kantxara. Hernanik gutxienez bi partidu jokatu ditu eta irabazi ezker finala. Gaurko partidua, 10:00etan Andoaingo kiroldegian. □

■ IGERIKETA

Gabonetako saria gaur kiroldegian

200 igerilari inguru izango dira gaur Hernanin Gabonetako Igeriketa Sarian. Proba Igeriketa Elkarteak antolatzen du eta goizeko 09:30etan hasiko da. Hernanitik 30 igerilari inguru aterako dira eta azken bolada onari eusteko aukera izango dute gaur. □



emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena

JENDAUURREAN HITZ EGITEKO IKASTAROA

“Taldeen partehartzea eta jende aurrean hitz egitea lantzeko”.

Emakumeei zuzendua

Urtarrila eta otsailan: Asteartetan

Bi ordutegi: 14:30 - 16:30

19:30 - 21:30

Lekua: Biteri Kultur Etxea
Izen emateko epea: **Urtarrilaren 3a**

LOGOTIPO LEHIAKETA: Epea: 2003-01-10
“Berdintasun Kontseiluaren Logoa”

Oinarriak eta informazioa:

Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54



Arrigoain jatetxea

Urtarrilaren
1etik 15era
itxita egongo da.
Urtarrilaren 16tik
aurrera irikita.

Santa Barbara 87 (Harrobian)
☎ 943 55 00 97

Telemar

Elkano 13 - ☎ 943 33 26 00
Kale Nagusia 7



EGUBERRI ON

Kontsultatu, gure Eguberritako eskaintzen aldizkaria

Agustinatako obrak atzeratu egingo dira, inguruan Erdi Aroko aztarnak egon litezkeelako

AGUSTINATAKO proiektuak bere martxa zeramakien. Diputazioak orain dela hila-bete batzuk onartu zuen Arau Subsidiarioen aldaketa, eta obrak urte hasieran ziren has-tekoak. Obrak nondik nora egin erabakitzeke sondeoak, ordea, egin berri dituzte eta Erdi Aroko zenbait aztarna arkeologiko azaldu dira. Orain, Arantzadiko Arkeologia talde bat Agustinatako inguruan eskabazioak egiten hastekoa da, eta obrak momentuz atzeratu egingo dira.



Agustinetan gutxi barru hastekoak ziren obrak.

Ontzi eta tresna aztarnak
Aranzadiko ikerlariak Agustina inguruan izan ziren atzo. Ikerketa buruan esan zuenez, “obretako sondeoak pista bat eman digu Hernaniko inguru honetan zerbaitek egon litekeela pentsatzeko. Hala ere, orain beste prueba berezi batzuk egingo ditugu, eta horrek argituko digu aztarna suelto batzuk diren, edo benetako aztarnategi bat den”.

Aranzadi Zientzia Elkar-

teak esan du zuhur jokatu nahi duela eta, oraingoz, ez duela ezer publiko egingo. Zabaldu duen bakarra da obretako sondeoetan azaldu diren aztarnak Erdi Aroko ontziak eta tresnak izan litezkeela, Kristo Ondorengo VIII eta IXgarren mende ingurukoak. Eta harrisi batenak izan litezkeen harri puskak ere atera dira.

Sondeo berezi horiek datarren astean egingo dituzte,

eta ia segurua da lasister eskabaziotan hasiko direla.

‘Jatorrizko Hernani’

Bestalde, Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia Sailak ere hitz egin du gai honetaz. Bere iritziz, sondeoetan azaldu dena konfirmatzen bada, oso litekeena da aztarna horiek Hernani herriaren aurreneko giza-asetamenduarenak izatea. □

KAROBI ELKARTEAK 2 URTE



Kristian magoak ume eta helduak aho zabalik utzi zituen kartekin eta beste objektuekin egin zituen magia eta trukoekin.

Karobi elkarteak urteurreneko afaria du gaur

KAROBI elkarteak bigarren urteurreneko afaria egingo du gaur, 21:00etan. Afalondoan Tuteko sariak banatuko dira.

Aurrekoetan bezala, Latsunbeko elkarteak aurten ere zenbait ekitaldi antolatu ditu urteurrena ospatzeko. Ostegu-

nean, Kristian magoak harrituta utzi zituen ume eta helduak bere magiarekin. Ondorenean, txokolatea ere izan zen. □

HITZ BITAN

✓ UDALA

2002-2003ko lan konbenioa onartu da. Osteguneko Plenoan Udaletxeko langileen konbenioa onartu zen. Hala ere, aurrera begira konbenioak zenbait aldaketa izan litzazke Eudel eta sindikatuak ados jartzen badira.

✓ ERRUGBIA

Lagunarteko partidua gaur Zarautzen. Hernanik Zarautzen jokatu du gaur arratsaldeko 16:00etan. Ligarik ez dago eta lagunarteko partidua da.

✓ ZINEA BITERIN

‘Doraemon’ pelikula gaur haurrentzat. Umeen-tzako pelikula botako dute gaur, Biterin, 17:00etan. □

LEHENENGO URTEURRENA

Mercedes Iruretagoyena Segurola

Andrea

2001eko abenduaren 4an hil zen 61 urte zituela, Eli-zakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Bapatean joan zinen arren, beti jarraituko duzu gure bihotz barren-barrenean. Bere sendia



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezela bihar, igande, goizeko HAMAIKETAN, Juan Bataiatzailea parrokian egingo den urtebetetze-ko mezara. Aldez aurretik, mila esker. **Hernanin, 2002ko abenduaren 28an**

LEHENENGO URTEURRENA

Justino Maizkurrena Agirrezabala

2001eko abenduaren 3an hil zen 75 urte zituela.

Haren emaztea, seme-alabak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek oroigarri meza eskaini nahi diogu eta guztiak gonbidatzen zaituztegu bertara etor zaitezten.



Oroigarri meza, **bihar igandea, abenduak 29**, goizeko 11:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokian.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103

☼ FARMAZIAK

- Egunez: Gomez
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- Gauetz: Bidaur
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskaldun bat behar dugu, haurrak zaintzeko eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu: **943 330308**

Emakume bat behar dugu, adineko pertsona bat zaindu eta etxeko-lanak egiteko. Interesatuak deitu (20:00etatik 22:00etara): **943 553766**



Antziola-Motor

SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA



18 urte Hernanin, zuekin Ford-eko gama guztiarekin

Modelo guztiak zure eskura

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteaz 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



Igande eta jai egunetan dantzaldia,
19:30etatik aurrera.

**Bihar igandea:
LAHOTZ**

OIALUME BILTOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38



Poltsa, lepoko, pitxi, lurrin eta abar

Italia eta Parisko azken moda,
Olentzero eta erregeetako zure oparientzako.

URTE BERRI ON DENORI.

URDIN DENDA
Montebideo kalea 1 - HERNANI -
(EPO eta atletismo pista artean)



Jantzi eta osagarrietan aukera zabala Laketen.
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

laketa

Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679
20120 HERNANI



**Zatoz festara!
URTEBERRI ON!**

Kardaberaz 22 - HERNANI

Asun
Esna
Bitxigintza



Larramendi 3
HERNANI 20120
Tifa. 943-33 04 78

Bitxien konpontetan egiten ditugu

Joyeria artesanal

Enkarguzko lanak, zilararekin eta urrearekin